

EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsioak eta berdintasuna blindatu



JUAN MARI ARREGI

Azaroaren 10eko Espainiako hauteskundeetan jaurtitako promesak betetzeko ordua iritsi da. Ñabardurak ñabardura, alderdi politiko guztiak –Espainiako Estatukoak zein Hego Euskal Herrikoak– pentsio duin batzuen alde agertu dira eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen dute, nola arlo sozialean edo lanean. Bai pentsioek bai berdintasunak denoi eragiten digute, helduak izan edo gazteak izan. Beraz, promesa horiek bete ditzatela eskatzeko ordua ere iritsi zaigu.

Hauteskunde gauaren ondoren sortuko den Espainiako Gobernuak beharrezko neurriak hartu beharko lituzke pentsioak eta berdintasuna blindatzeko. Baina blindatu bakarrik ez, balioan jarri ere bai, eta milioika alargun eta herritarrek jasotzen duten gutxieneko ordain-saria handitu behar luke. Klean mobilizatzen ari diren pentsionistei erantzun behar diete eta 1.200 euroko gutxieneko pentsioa ezarri. Gobernu autonomikoek ere badute erantzukizunik auzi honean, baita baliabideak ere, pentsio horiek osatzeko. Berdintasunaren arloan, bestalde, garbi dago: lan berdina, soldata berdina.

Horretarako dirua behar da. Eta badago. Nola lortu? Krisi garaian bankuei emandako 60.000 milioi euroak berreskuratuz; bankuei, enpresa handiei eta multinazionaliei zerga berezia ezarrita; zerga-paradisua pertsegitzen; militarren eta Errege Etxearen faktura erabat murriztuta; ustelkeriaren bidez lapurtutako dirua itzularaziz...

Plan hori aurrera ateratzeko, eta soldadak, osasun zerbitzuak edo hezkuntza hobetzeko, borondate politikoa edukitzea nahikoa da. Espainiako Gobernuaren gain dago ardura, baina baita Urkullu, Chivite eta hitza eman duten beste guztien gain ere. ●

ANALISIA



52 diputatu faxista, gaitz baten sintoma

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ikusitakoak ikusita, “Espainiako Estatua krisian dago” esateari utzi eta “Espainiako Estatua krisia da” esatera pasa beharko genuke: bere buruarentzat irtenbide instituzionalik aurkitzen ez duen telenobela bihurtua dago, urteak aurrera doaz, hauteskundeak bata bestearen atzetik kateatzen dira eta ez dirudi azaroko hauek ere soluzio askorik ekarriko dutenik.

Pedro Sanchezek apirilean baloia hartu zuenean posesio laburraren alde egin zuen. Asko konbentzitzen ez zuen ezkerreko pakturantz korrikaldi baten ondoren, Iglesiasi baloia pasa ordez hiruko urduri bat jaurtitzea erabaki zuen. Tiroak burdina jo du. Errebotea Vox-eko faxistentzat. Eta partidua lehen baino konplikatuago. Gobernu aurrerakoia lortuko duela esan du jarduneko presidenteak hauteskunde gauean, baina kongresuaren gazta erdia nola banatu den ikusita, duela zazpi hilabete baino kabriola gehiago egin beharko ditu, Unidas Podemoseko sozialdemokrata populisten eta Ciudadanoseko liberal-falangisten babesla lortu beharko lukeelako, eszenan agertu diren ordezkariak txikiko alderdi batzuenaz gain.

Bada beste aukera bat, PPrekin alemaniar estiloko koalizio handi konstituzionalista bat osatzea. Gehiengo zabal horrekin 78ko erregimenaren eraikinak ustelduta dauzkan zimenduetan obrak egin ahalko lituzkete, amiltzeko arriskuan dagoen *cortijo*-a nolabait zurkaiztu. Baina apustu horrek problema bat dauka: are gehiago laineratuko luke Abascalen legioa.

Gobernagarritasun faltaz hitz egiten dute tertuliano iberikoek aspaldiko urteetan. Ez da harritzekoa, kontuan izanda Espainiako kultura politikoan duela 40 urtera arte gobernaezintzat jotzen zela alderdi batek baino gehiagok parte hartzea baimentzen zuen edozein sistema. Atzetik etorri zen bi partidu handien alternantzia oinarritutakoa, 78ko Erregimena, baina onenak emanda dagoela dirudi. Eta zaharra ahitzear dagoen, baina berria berandutzen ari den argilun horretan, munstroak agertzen hasi dira: 52 diputatu faxista patrioi menpeko Espainia batuaren zerbitzura. Vox-en obsesioak Espainiaren krisiaren sintomatza hartzen baditugu, garbi samar ikusten da eskubide nazionalak eta sozialak direla estatua gaixotzen dutenak. Bi eremu horietan egiten diren borrokek erakutsiko dute, beraz, etorkizunak zer aurpegi izango duen, segur aski hauteskondeek baino argiago. ●